

HERRI TXIKIEN ETORKIZUNA III
EL FUTURO DE LOS PUEBLOS PEQUEÑOS III
LE DEVENIR DES PETITS VILLAGES III

2017-11-10

Antzin / Ancín (Nafarroa / Navarra)

[Bideo1](#) eta [Bideo2](#)

GAZTELANIAKO TALDEA

Aurreko foroetako ondorioei egindako ekarpenak eta iruzkinak:

- Errealitatearen ikuspegi idealista, hiritik egindakoa (?)
- Hezkuntza eta osasuna funtsezkoak dira herri txikien iraupenerako
 - Landa-eskolak oso garrantzitsuak dira, herritarrak finkatu eta lurrarekiko lotura sortzen dutelako
 - Antzinen kasua: eskola desagertzeaz egon zen, ikasle gutxi zituelako. Nafarroako Gobernuari eskatu zioten zonako eskola bihurtzea eta D hizkuntza eredu ezartzea.
 - Gaur egun inguruko 20 ikasle baino gehiago ditu eta Nafarroako Gobernuak garraioa eta jantoki-zerbitzua bermatzen dizkio.
- Turismoa eta zerbitzu-sareen sorkuntza garrantzi handikoak dira, herriak suspertzeko tresna gisa.
- Networking-espazioak eta sareak (hirugarren espazioa) sortu behar dira udaletan; herrietan industria- eta teknologia-esperientziak egokitu eta balio propioak berreskuratu eta kapitalizatu egin behar dira; ekintzailearen ikuspegia aldatu behar da.
- Neurri politikoen ondorioak ez dira beti positiboak izaten (adibidez, Bide Berdea, Lokizeko mendilerroa...).
- Batzuetan kanpoko ikuspegia behar izaten dugu gauza berriak eta arazoei irtenbideak «asmatzeko».
- Premiazkoa da tradizioen, historien, gauzak egiteko moduen nahiz tokiko memoriaren inbentarioa egitea... Hori guztia ere herriaren aberastasuna da.
- Herriek badute abantaila handi bat hirien aldean: ekintzailezari lotutako gauza berriak egiteko aukera, eta beti egoki dimentsionatuta.

EL
IK
KUNTTZA
Asmoz ta Jakitez

- Kontzientziazio tailerrak (kontsumoa, elikadura, aisialdia, etab.) eta hausnarketa-guneak sustatu.
- Kooperatibismoa, inizatibak bultzatzeko diru-laguntza publikoak.
- Lege-aldaketa: malgutasun handiagoa, landa-eremurako lege bereziak, diskriminazio positiboa.
- Sare laburrak sortu: kontsumitzaile eta ekoizleen artean.
- Herri-lurren kudeaketa udalek berreskuratu.



ZER / QUÉ

NOLA / CÓMO

NORK / QUIÉN

EUSKAL
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez